



SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2019KO OTSAILAREN 4KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, HONAKO HAU ALDATZEN DUENA: 2018KO URRIAREN 16KO AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA GARBIALDI SA ENPRESAKO LANGILEEK GIPUZKOAKO ADINGABEEN ZENTROAN ETA ERAIKIN ETA LOKAL JUDIZIALETAN GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN EZINBESTEKO ZERBITZUAK BETE EGINGO DIRELA.

2018ko urriaren 16an, Garbialdi SA enpresako langileek Gipuzkoako adingabeen zentroan eta eraikin eta lokal judizialetan gizarteari ematen dizkioten ezinbesteko zerbitzuak beteko direla bermatzeko agindua ezarri zen, ELA, UGT, ESK eta LAB erakunde sindikalek aurkeztutako greba-deialdiarekin lotuta (deialdi mugagabea egin zen 2018ko urriaren 17tik aurrera), deialdiaren egileek adierazi bezala, ez dagoelako akordiorik Gipuzkoako eraikin eta lokal judizialetan lan egiten ari diren langileen eta enpresaren arteko hitzarmenean gauzatzen ari diren negoziazioetan, enpresak akordio bat onar dezan, hitzarmen honetako langileak arautzeko eta hainbat alderdi aurreikusteko (besteak beste, soldata-hobekuntzak, kontratazioko hobekuntzak, hitzarmena ez aplikatzeko adostutako klausulak eta abar).

Gogoratu beharra dago deialdi honen aurretik beste bi greba-deialdi egin zirela, 2018ko irailaren 19tik urriaren 3ra eta 2018ko urriaren 4tik 16ra, eta horien zioz ezarri zirela 2018ko irailaren 17ko Agindua eta 2018ko urriaren 2ko Agindua.

Gainera, nabarmentzekoa da eraikin judizialetako baldintzen zioz sortu ziren kexen eta salaketen ondorioz bilera bat egin zela 2018ko abenduaren 19an Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, eta bertan, akordio bat lortu zela, 2018ko urriaren 16ko Aginduan ezarritakoaren harira sortu ziren gatazkak ebazteko.

Eusko Jaurlaritzak Garbialdi SA enpresa kontratatu du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ibaiondo Adingabeen Zentroan eta eraikin eta lokal judizialetan garbiketaz-zerbitzua emateko.

Azalpenen zatiko bigarren atalaren arabera, ezarritako gutxieneko zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada, administrazio-izapide egokiak bete ondoren.

Aurkeztutako salaketak eta kexak kontuan hartuta, Gipuzkoako Lan Ikuskaritzak hainbat ikuskapen-bisita egin ditu ukitutako lokaletara.

Hala, 2018ko azaroaren 2an bisitatu egin zen Donostiako San Martin kaleko 41. zenbakian dagoen eraikina, Gipuzkoako Probintzia Audientziaren eta Justizia Administrazioiko beste zerbitzu batzuen egoitza dena, eta horren gaineko txostena egin zen, espedientean ageri den bezala. Txosten horren arabera, besteak beste zikinkeria



edo deserosotasuneko hainbat egoera antzeman dira, paperezko poltsak eta kutxak metatuta daudelako, baina ez da neurri osagarririk aurreikusi.

Ondoren, 2018ko azaroaren 19an, salaketa jaso ostean, ikuskapen-bisita egin zen Donostiako Justizia Jauregiaren lantokira (Kalkutako Teresa plaza, 1), eta horren gaineko txostena egin zen, espedientean ageri den bezala. Txosten horretan, baldintza higieniko sanitarioak eraikineko hainbat bulegotan egokiak ez direla egiaztatu ondoren, txostena eskatu zitzaion Prebentzio Zerbitzuari lan-baldintzei buruz. Zerbitzuak azaroaren 29an igorri zuen txostena, horren gaineko neurriak proposatzeko; horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste: *garbiketa-enpresari eska dakiola gutxieneko zerbitzu guztiak bete ditzala, eta horien arduradunei jakinarazi dakiela metatutako hondakinetan hondar organikoak daudela.*

2019ko urtarrilaren 11n, beste ikuskapen-bisita bat egin zen Justizia Jauregira, eta horren gaineko txostena egin zen, espedientean ageri den bezala. Txosten horren edukitik nabarmentzekoa da ikuskari jarduleak honako hau berretsi duela: *eraikineko lehen, bigarren eta hirugarren solairuetan egiaztatu denez, zabor-poltsak daude metatuta (100 litro inguruko edukiera dutenak) erabilera publikoko, eta, ondorioz, sarbide errazeko korridoreetan. Poltsetan batez ere materia ez organikoa dago (papera eta/edo kartoia); hala ere, egindako ikuskapenean egiaztatu ahal izan denez, gune horietan usain desatseginak daude eta intsektuak ugaritzen ari dira, batez ere Gipuzkoako Fiskaltzako bulegoetarako sarbidean.*

Halaber, bereiziki aipatu da Gipuzkoako Fiskaltzaren egoera, zeinaren gainean honako hau berretsi baita: *instalazioetan garbiketa falta da, grebaren lau hilabeteen ostean, eta aireztapen naturalerako zailtasunak daude, eraikinaren egiturazko ezaugarriak direla eta. Ikuskari jarduleari jakinarazi zaionez, langileek alergiearekin edo dermatitisarekin lotutako pasarteak jasan dituzte, beren ustez bertako baldintzen ondorioz.*

Txosten horien arabera, Gipuzkoako eraikin eta lokal judizialen egoera, pertsona ugari barne hartzen dituena (bai langileak, bai erabiltzaileak) kaltetzen joan da 138 egunera luzatu den grebaren ostean (iazko irailaren 19tik), eta arrisku higieniko sanitarioa areagotu egin da. Halaber, hutsuneak antzeman dira alderdiek 2018ko abenduaren 19an sinatutako akordioaren betearazpenean, gutxieneko zerbitzuak mintzagai, ez baitira jaso materia organikoz kutsatuta egon daitezkeen edozein motatako hondakinak, berariaz adostu zen eta aktan agertzen den bezala. Gainera, hondakin horiek oraindik ere jaso gabe jarraitzen dute. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da 2018ko urriaren 16ko Agindua aldatzea, eta, beraz, gutxieneko zerbitzuak handitzea eta aparteko garbiketa-zerbitzua eskatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko lokal eta eraikin judizialetan.

Lan Harremani buruzko Errege lege-dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege lege-dekretuaren) 10.2. artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartezko neurriak har ditzake».



Apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren (Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenaren) 3.1. artikulua Lan eta Justiziako sailburuari aitortzen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saileraren sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko ezinbesteko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA. - GARBIALDI SA enpresak, Gipuzkoako eraikin eta lokal judizialak eta lurralde horretako adingabeen zentroko garbiketa-zerbitzuaren esleipenduna denak, aparteko garbiketa-zerbitzua egingo du (metatutako hondakinak jasoko ditu, eta, ondoren, gunea garbituko) Donostiako eraikin judizialeko (Kalkutako Teresa Plaza, 1) bigarren eta hirugarren solairuetan.

Aparteko garbiketa horretan, nolana ere, honako zeregin hauek sartuko dira: instalazio guztien (bainugelak, eskailerak, korridoreak, bilera-gelak, bulegoak eta abar) garbiketa eta desinfekzioa, eta era guztietako hondakinen bilketa, bai materia organikoena, bai ez organikoena.

Aparteko garbiketa-zerbitzu hori berehala egingo da, beharrezkoa den denboran, amaitu arte, eta zeregin hori betetzeko beharrezkoa den enpresako langile-hornidura erabiliko da horretarako.

BIGARRENA. - 2018ko urriaren 16ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete egingo dira, alderdiek 2018ko abenduaren 19an izandako bileran adostutako akordioan jasotako zehaztapenekin.

HIRUGARRENA.- Azaldutakoaren ondorioz, Agindu hau indarrean jarriko da jakinarazten den unean, eta orduan izango ditu ondoreak.

LAUGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean (uztailaren 13ko 29/1998 Legean) xedatutakoaren arabera.



Halaber, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan xedatuari jarraikiz, jakinarazi egingo da agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela, lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 4a.



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ

LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA

JUSTIZIA
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA